

OHI KANPOKO OSOKO BILKURA 10/12

UDALAK 2012ko URRIAREN 16AN EGINDAKO OHI KANPOKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Luis Intxauspe Arozamena jn.

ALKATEORDEAK:

Gloria Mendinueta Yeregi and.
Idurre Conde Santa Cruz and.
Asier San Emeterio Otegi jn.

2012ko urriaren 16an ohi kanpoko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Arantxa Urain Mendiburu idazkaria.

ZINEGOTZIAK:

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.
Aitor Miner Aginaga jn.
Iker Goenaga Gubia jn.
Beñat Amenabar Perurena jn.

IDAZKARIA:

Arantxa Urain Mendiburu and.

1.- KUTXAKO KONTSEILARIAK IZENDATZEA.– Udalbatzak 2012ko irailaren 25ean egindako osoko bilkuran erabaki zuen Aitor Miner Aginaga jauna izendatzea Hernaniko Udalaren izenean Gipuzkoa Donostia Kutzako kontseilari nagusi kargua betetzeko.

Alabaina, izendapen horretan akatsa dagoela ikusi da, Miner jaunak, kargu politiko hautetsia izanik, horretan aritzeko bateraezintasuna baitauka.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

1. 2012ko irailaren 25eko osoko bilkuran onartutako izendapena baliorik gabe uztea.
- 2.- Honako pertsona hauek izendatzea Hernaniko Udalaren izenean Gipuzkoa Donostia Kutzako kontseilari nagusi kargurako.
 - Peio Egaña Sarobe jn. (titularra).
 - Ibai Aristimuño Zubillaga jn. (ordezkoa).

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 19:05 orduetan bilera bukatutzat eman da eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatu dut.